

euskararen berripapera



192

Euskara 21 ekimena abian da

Euskararen Aholku Batzordeak euskararen etorkizunari begira gauzatu beharreko hizkuntza-politikaren inguruan eztabaida eta hausnarketa bultzatu nahi du. Hori egite aldera, "XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak" izeneko batzorde-atala jarri du martxan bere baitan. Batzordeak gogoeta horren abiapuntua izango den oinarrizko txostena gizarteratu berri du (ikus www.euskadi.net/euskara21 helbidean).



Ezker-eskuin: Eneko Oregi, Aurelia Arkotxa, Pello Salaburu, Patxi Baztarrika, Lore Erriondo, Alberto López Basaguren eta Erramun Osa.

Helburua, euskararen etorkizunari begira landu beharreko hizkuntza-politikaz egingo den eztabaida euskal gizarte osora zabaltzea da. Eman beharreko pausoak zehaztu eta, era berean, adostasun politiko eta sozial berria lortzeko ahaleginak indartu nahi dira. Beraz, batzorde-atalako kideek egingo dute gogoeta, baina herritarrek ere beren iritzia plazaratzeko aukera izango dute.

Batzorde-atal hori 40 kidek osatu dute. Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordea da buru eta erakunde publiko, hezkuntza, kultura, komunikabide, enpresa, alderdi politiko, sindikatu, euskalgintza, gizarte-elkarte eta ekonomia arlokoak dira kideak.

Funtzionamendua errazte aldera zazpi lagunez osatutako batzorde iraunkorra eratu da. Ondokoak dira zazpi kideak: Patxi Baztarrika HPSko sailburuordea, Erramun Osa HPSko Koordinaziorako zuzendaria (koordinatzaile eta idazkaria), Aurelia Arkotxa, Lore Erriondo, Alberto López Basaguren, Eneko Oregi eta Pello Salaburu. Batzorde iraunkor horrek hizkuntza-politikaren inguruko hausnarketaren abiapuntua izan nahi duen oinarrizko txostena prestatu du (ikus Pello Salabururi egindako elkarrizketa).

Euskara 21 web gunea

Euskal gizarte osoak landu beharreko hizkuntza-politikaz egingo den eztabaidan parte har dezan Euskara 21 web gunea (www.euskadi.net/euskara21) jarri du abian. Bertan, besteak beste, batzorde iraunkorrek egindako oinarrizko txostena kontsulta daiteke, blogaren bidez gogoetan parte hartu daiteke eta gogoetaren inguruan sortutako berriak jaso ditzake erabiltzaileak. Era berean, aldian-aldean argitaratuko den *Euskara 21* izeneko buletin e-postaz jasotzeko aukera ere izango da.

Eztabaida zabala, irekia eta handia


Euskara 21 ekimenaren aurkezpenean hainbat adierazpen egin zuen Patxi Baztarrika sailburuordeak eta besteren artean hitz hauek esan zituen: «Aspaldiko urteetan gure artean hizkuntza-politikaren gainean izan den eztabaidarik zabal, ireki eta handiena izango da: handiena, hedadurari eta parte-hartzaile kopuruari dagokionez; zabal eta irekiarena, mahairatuko diren eta bata bestearen artean kontrastatuak izango diren ikuspuntuaren ugaritasunari dagokionez. Seguru nago gai izango garela giro lasaian, tamaina honetako eztabaida batek eskatzen duen zorrotasun eta gordintasunez, erdi-egien edo erdi-gezurren erosotasunean erori gabe, baina, aldi berean, soseguz eta errespetuz eztabaidatzeko. Ziur naiz gai izango garela beti aberatsa eta emankorra den askatasunean eztabaidatzeko, hanka sartzeko beldurrik gabe, ertz batetik euskararen etsaitzat eta beste nonbaitetik euskararen talibantzat deskalkifikatuak izateko beldurrik eta arriskurik gabe. Eztabaida honen beharra adierazteko lau hitz uztartuko ditut: euskararen erabilera, atxikimendua, kontsentsua eta transbertsalitatea».

Baztarrikak azaldu du eztabaida horrek gutxienez urtea bukatu arte iraungo duela eta eztabaidaren konklusio moduko dokumentu berria ontzen ahaleginduko direla. ●

Pello Salaburu, batzorde iraunkorreko kidea

“Euskara gizartearen kontua da, euskaldunena eta erdaldunena”

Euskara 21 ekimenaren abiapuntua da oinarrizko txostena, zazpi kideko batzorde iraunkorrak prestatu duena. Pello Salaburu zazpi kide horietako bat da. Berari galdetu dizkiogu oinarrizko txostenaren nondik norakoak.



Pello Salaburu, batzorde iraunkorreko kidea.

Nola garatu duzue zazpi kideon artean oinarrizko txosten bateratua?

Baztarrikari aipatu nion batzorde iraunkorra osatzeko ezinbestekoa izango zela taldean euskaltzaleak biltzea eta iritzi guztietakoak. Hala izan da. Hausnarketa eta bilera asko egin dugu eta norberak bere txostenak prestatu ditu. Txosten horiekin, pixkanaka-pixkanaka, txosten bateratua prestatzen hasi ginen. Egia esan, ez nuen uste txosten bateratua egitea lortuko genuenik, iritzi diferentek baike nituen. Uste nuen txosten orokor bateratua kaleratuko genuela eta ondoan hainbat punturen inguruan emandako iritzi desberdinak bilduko genituela. Ez da hala gertatu, txosten bakarra egitea lortu dugu.

Zer nabarmenduko zenuke oinarrizko txostenetik?

Batetik, iritzi diferentetako euskaltzaleek osatutako dokumentua da. Bestetik, kontuan izan behar da txosten honetan ez dela planik egiten, ez da plangintza bat, planak egiteko kontuan hartu beharrekoa baizik. Hirugarrenik, berriak diren, edo bestela esateko, euskaltzaleen artean hain argi esan ez diren hainbat gauza azpimarratzen dira. Esate baterako, elebitasunaren alde egiten da nabarmen, ez euskarazko elebakartasunaren alde eta ezta gaztelaniazko elebakartasunaren alde ere. Beste adibidea borondate hitza azpimarratzea da. Alegia, legeak bai, behar ditugu, baina herritarren borondatearik ez baldin badago ezin da aurrera egin. Gertu daukadan adibidea jarriko dizut hori azaltzeko: unibertsitateko ikasleek euskaraz ikasten dute,

euskararen aldeko aldarriak egiten dituzte, baina batzuek gaztelaniaz egiten dute beraien artean.

Hizkuntza-politikak progresiboa, malgua eta neurrikoa behar duela izan jasotzen du txostenak.

Halaxe da. Delikatua da gaia, hizkuntza ahulena babestu behar baita gehien, laguntza gehien horrek jaso behar ditu. Alabaina, hori dena progresiboki eta malgu jokatzuz egin behar da. Bestela, neurritz kanpoko etsaiak egingo ditugu eta orduan euskarak jai dauka.

Erabilerak ere aipamen berezia du txostenean.

Helburu bakarra horixe da-eta, euskaraz hitz egitea. Baina lehengora noa. Ez du balio erkidego osoa modu berean tratatzeak, erabilera maila diferentek daude eta horien arabera jokatu behar da. Noski, helburua euskaraz hitz egitea da.

Irakaskuntza ere jaso duzue.

Uste genuen eskolan euskara ikastea nahikoa zela erabilera segurtatzeko. Ez da hala gertatu. Batetik, irakasle batzuk presaka euskaldundu ziren eta bestetik, lehen esan dudanaren haritik, eskolan euskara ikasi bai, baina erabili ez. Eskola ez da nahikoa erabilera lortzeko.

Autokritika eta kritika lasai egin behar direla dio txostenak.

Bai, biak, euskararen bultzatzaileen eta euskara bultzatzen ez dutenen lana da hau. Azpimarratu behar dugu euskara gizartearen kontua dela, euskaldunena eta erdaldunena. Denok gure aldetik ahal duguna jarri behar dugu ●





Dolores Solá

Voluntaris per la llengua, immigratio berria gizarteratzea sustatzeko tresna eginkorra

Kataluniako Generalitateak Consorci per a la Normalització Lingüística elkartarekin burutzen duen ekimena da *Voluntaris per la llengua*. Ekimen honek bi helburu nagusi ditu:

- Katalan hizkuntza bertakoen eta etorkinen arteko komunikazio-hizkuntza bihurtzea.
- Katalanaren ikaskuntzaren eta erabileraren balio positiboak azpimarratzea, beti ere, lurralde berean bizi direnen elkarren arteko ezagutzarekin lotuta.

Dolores Solák idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.



Argitalpenak



Quina política lingüística?
Toni Mollá



Kale neurketaren V. neurketa, 2006. Emaitzak, azterketak, gogoetak
Bat Soziolinguistika aldizkaria



Azterlana

Colloque international sur l'Écologie des langues

Baudreau, A. et. alli

30 erakunde ebaluatuko dituzte **Bikain** ziurtagiria eskuratzeko

2008an, 45 enpresak eta erakundeek eskatu dute **Bikain ebaluazioa egitea baina aurrez finkatutako irizpideak aplikatu ondoren, 30 ebaluatuko dituzte.**



2007ko abenduan aurkeztu zen Eusko Jaurlaritzak luzatzen duen *Bikain*, Euskararen Kalitate Ziurtagiria, enpresen munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen etengabeko normalizazioa ebaluatu eta egiaztatzen duen ziurtagiri publiko ofizial eta doakoa. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde publiko zein pribatuek ziurtagiri hori eskura dezakete euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren gutxieneko maila egiaztatu ondoren.

2008an, *Bikain* ekimenaren lehen ezarpen-urtean, hain zuzen ere, 45 enpresak nahiz erakundeek eskatu dute ziurtagiria lortzeko ebaluazioa egitea, hau da, gutxieneko euskara maila egiaztatzea. Aurrez finkatu eta jakinarazitako

irizpideak aplikatu ondoren, 30 erakunde aukeratu dira ebaluazioa egiteko. Erakunde horietatik 8 industria sektorekoak dira eta 22, berriz, zerbitzu sektorekoak.

Aukeratutako enpresek zein erakundeek honako urrats hauek eman beharko dituzte: 1) Ebaluatuko den erakundeari buruzko oinarritzko informazioa biltzen duen Aurretikostena osatzea; 2) Ebaluazio-bisita prestatzeko bilera ekainean izango da; 3) Ebaluazio-bisita uztailaren hasieran izango da.

Ebaluazio-lan hori zeregin horretarako gaitasun egokia duen talde ebaluatzaileak egingo du. Lan hori al bait ongien betetze aldera, ebaluatzaile horiek trebatu egingo dira. Hori dela eta, Euskalit-ek (Kalitaterako Euskal Iraskundea) eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Bikain* ebaluatzaile izateko apirilean eskaini zituzten bi prestakuntza-saioetan 120 lagunek parte hartu zuten ●

Patxi Baztarrika eta Anjel Lertxundi euskararen etorkizunaz

HAEE-IVAPEk, bere sorreraren 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu ditu, eta, besteak beste, hiru jardunaldi antolatu ditu Berrikuntza oinarri harturik. Horietao bat maiatzaren 8an izan zen Donostian “Berrikuntza eta Euskara Herri Administrazioetan” izenburupean. Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak eta Anjel Lertxundi idazleak hitzaldi bana eman zuten.



Patxi Baztarrika eta Anjel Lertxundi.

Patxi Baztarrikak hitzaldia esaldi batekin hasi zuen eta esaldi berarekin amaitu: «Erabilera helburu, atxikimendua zubi, adostasuna elikagai». Berrikuntza hitza ahotan hartuta euskararen diskurtsoa berritu beharra azpimarratu zuen, gizarte-kohesioa lortuko bada. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatzen duen hizkuntza-politikari buruzko zenbait alderdiren nondik norakoak jorratu zituen. Hona hemen, jorrotutako alderdirik aipagarrienak:

- **Euskara ez dago hiltzorian.** Ukaezina da munduan hizkuntza-aniztasuna arriskuan dagoela, baina euskararen egoera bestelakoa da. Alabaina, etorkizuna ez daukagu segurtatuta, ahuleziak ditugu. Esate baterako, proportzionalki bada ere, plazan eta etxean atzera egin du euskarak, hau da, eremu ez formaletan.

- **Eleaniztasunaren eta globalizazioaren garaia da.** Hiru hizkuntzen ondoan (euskara, frantsesa eta gaztelania) ingelesa daukagu orain. Inguru hori ez da etsipenez hartu behar. Aniztasuna aberastasuna da, elebakartasuna ez dugu gogoko. Gaztelanirik gabeko etorkizunik ez dugu irudikatzen.

- **Ezagutzatik erabilerara.** Euskara ondarea da, baina batik bat eguneroko hizkuntza. Helburuetan helburua da hori, euskara erabiltzea. Euskara erabiltzeari utziko bagenio, akabo gure euskara “maitea” eta “zoragarria”. Nola lortu, bada, euskara erabiltzea? Besteren artean inposatu gabe, pertsuasioa erabiliz. Alabaina, ezin da lortu erabilera areagotzea deserosotasunik gabe.

- **Adostasun sozial, politiko eta kulturala.** Euskara herritar guztiak kohesionatzeko erabili behar da. Gehiago komeni zaigu kohesio hori ikuspegi kultural eta ekologikotik lortzea, identitatearekin lotzea baino. Horrela, euskararekiko adostasunean aurrera egiteko edozein identitate errespetatu behar da, dela euskalduna, espainiarra, ekuadortarra...

- **Gizarte elebidunak herritar elebidunak behar ditu, baina elebidun pasiboak ere bai.** Elebitasun simetrikoa gogoko izan arren, onartu behar dugu belaunaldi batzuetan elebitasun asimetrikoa izango dugula. Elebitasun pasiboari aitormen soziala egin behar zaio.

Baztarrikaren ondoren Anjel Lertxundi aritu zen hizketan. HAEE-IVAPen urteurrena izanik, administrazioan erabiltzen den hizkera burokratikoari buruzko gogoeta egin zuen, besteak beste, Lertxundik. Izurrite modukoa zela azaldu zuen, alegia, hizkera burokratiko, artifiziala, anbigua, abstraktua asko hedatu dela. Herri-administrazioa langile-entzate hainbat aholku luzatu zituen eta era berean azpimarratu zuen hizkera burokratiko hori, administrazioarako baliagarria den hizkera hori, behar ez den eremuetara zabaldu dela. Besteak beste, hedabideek hizkera hori nola imitatzen duten eta gainera bozgorailu-lana nola egiten duten azaldu zuen. Egoerak adina hizkera daudela nabarmendu zuen

Motibazioaz ere jardun zuen Lertxundik. Hiritarra makilatzea alferrik dela esan zuen, berez behar duela: **«Legeak, makilak, behar dira, baina motibaziorik ez badago ez dugu ezer egingo»**. Motibazioak politikoa soilik ez duela izan behar adierazi zuen, are gutxiago kolore bakarrekoa, **euskaraz bizitzeko modu anitzak** aldarrikatu zituen.

Hasierak amaiera ekartzen duela esanez amaitu zuen hitzaldia Lertxundik. Hala esan zuen: «Gure gurasoak elebakarrak izan dira, gu ele bikoak eta gure seme-alabak eleanitzak. **Elebakarraren obsesioak ez digu balio.** Agian euskarak aukera bakarra dauka, panorama eleanitzean tokia bilatzea» ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 • berripapera@ej-gv.es